

# Sagardoa eta giro bikaina nagusi

## XX. Sagardo Egunean

**F**esta giro aparta, plaza gainezka, jendea non-nahi, sagardo botatzaile ugari, sagardoa usurbildar eta gainontzekoentzat errege... XX. Sagardo Egunak erabateko arrakasta izan du beste behin ere. Eguraldiak lagun-duta jende ugari hurbildu zen goiz partean Gipuzkoako 45 sagardotegietako sagardoak edatera. Arratsaldean, berriz, erromeri giro aparta sortu zen Tapia eta Leturiarekin.

*"Iaz baino mila baso gehiago saldu dira aurten"* zioen antolatzaileetako batek goizeko saioa bukatu bezain laister. Ez da harritzekoa, jende ugari bildu baitzen herriko plazan. 45 postutan banatuta zeuden 5.400 botella sagardoak ez ziren nahikoa izan Usurbila gerturatu ziren denak asetzeko. *"Hurrekin plazara sartu ezinik ibili gara"* entzun zitekeen frontoiko sarreran, eta postu bate-



tik bestera ibiltzerakoan jende artean lekutxo bat egitea ere lan nekeza zen maiatzaren 20an.

Hasierako ekitaldia ere ez zen urteroko berdina izan. Iker Muguruza eta Mikel Artolak eragindako txalaparta soinuek Aitziber Elortza, Garbine Erre-

kondo, Edurne Aizpurua eta Maritxu Martinen irrintzien laguntza izan zuten lehendabizi eta ondoren Kantabriatik etorri ziren 40 lagunetatik hiruk gaita, danborra eta panderoz alaitu zuten herriko frontoia. XX. Sagardo Eguneko lehendabiziko sagardo botella, berriz, Jose Ignacio Astiazaran Iruingo sagardogileak ireki zuen. Izan ere, Sagardo Egunaren Lagunak Elkartekoek 35 urte hauetan sagardoaren alde egin duen guztia eskertu nahi izan zioten omenaldi xume honen bidez.

Botatzaileen lehiaketak ere ikusmin handia sortu zuen. Arantxa Unanue, Urko Manteola, Iker Muguruza, Kerman Errekondo, Dorronsoro eta Jon Astiazaran izan ziren oholtza gainera igotzera ausartu ziren bakarrak eta epaimahaikoen eritziz Iker muguruza izan zen ondoen egin zuena. Kerman Errekondok eskuratu zuen bigarren postua eta Jon Astiazaranek hirugarrena.

Arratsaldean, aldiz, erromeri giroa izan zen nagusi. Herriko trikitilariak egokitu zitzaizkien erromeria hasi eta bukatzea, baina tartean nahikoa dantza egiteko aukera izan zen Tapia eta Leturia eta beraien lagun-tzaileekin. Herritar nahiz kanpotarrek frontoia txiki utzi zuten. Batzuk dantzan, besteak dantzariak begira... baina guztiak gustora



### ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea



Txoko alde, Tel.: 36 27 13

Prezioa: 3800 pta. (pertsonako)

### Kalkos kopisteria

- Fotokopiak
- Fotokopiak koloretan
- Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- Planoen kopiak (A0 arte)
- Ordenadoreko lanak
- Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea  
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55